

## Liburuak, haurrengana

### **Euskal Herriko liburutegi askotan izango du gaur oihartzuna Haur Liburuaren Nazioarteko Egunak**

Juan Luis Zabala. Donostia

Ipuin kontaketak, ilustrazio tailerrak, antzerki emanaldiak... Euskal Herriko liburutegi askotan antolatu dituzte Haur Liburuaren Nazioarteko Egunarekin lotutako ekitaldiak: gaur egitekoak batzuk, gaur baita ospakizunaren eguna, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotzaren urteurrena; beste batzuk aurreko edo ondorengo egunetan eginak edo egitekoak.

IBBY Haur Liburuen Nazioarteko Erakundeak zabaltzen du, urtero, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguneko irudia eta mezua. Aurten IBBYren Thailandiako ordezkariak hartu du horien ardura, eta Chakrabhand Posayakriten lanak hautatu ditu horretarako.

Litekeena da bi urte barru euskal idazle batek egindako mezua edo euskal ilustratzaile batek egindako irudia zabaltzea munduan zehar Haur Liburuaren Nazioarteko Egunean, 2010ean OEPLI Espainiako Haur Liburuen Erakundea arduratuko baita horietaz. Lehiaketa baten bidez egingo dute hautaketa.

### **AURTENGO IRUDIA ETA MEZUA**

#### **Liburuek irakatsi egiten dute. Jakintzak gozamina ematen du.**

Hauek dira IBBY elkarteak gaurko ospakizunetarako zabaldu dituen irudia eta testua, Chakrabhand Posayakritek eginak biak. Testuan aipatzen diren jatakak Budaren aurreko bizitzetako pasarteak kontatzen dituzten istorioak dira, tradizio budistaren arabera. Testuaren itzulpena Galtzagorri elkarteak eginga da.

Irakurketaren bidez jakintza bilatzeak lehentasunezko tratua jaso behar du eta haurtzarotik sustatu behar den zerbait behar du izan. Nire ustez, haur thailandiarrei, betidanik irakatsi zaie irakurketaren bitartez ezagutzeko desioa, eta irakurketa hau kultura eta tradizio batean oinarritu izan da. Gurasoak dira beraien lehenengo irakasleak, eta klerikoak, aholkulari nagusiak. Beraiek gidatu eta hezi dituzte haur txikienak bai intelektualki bai mentalki, hala munduko gaietan nola gai espiritualetan. Horrela, koadro hau sortzeko, Thailandiako arbasoen ohituretan aurkitu nuen inspirazioa: haurrak hezteko ipuinak kontatzea, horretarako palmondo hostoetan idatziriko inskripzioak irakurraraziz. Palmondo hosto hauek, ondoren, eksklusiboki gainean irakurri ahal izateko diseinatuta zeuden mahai txiki tolesgarri batzuetan ipintzen ziren. Palmondo hostoetan idatzitako istorioek, orokorki, Budismoan izaten dute jatorria. Budaren bizitzaz eta jataken istorioez mintzatu ohi dira, gazteen buruak jantzi eta beraiegan fedea, irudimena eta moraltasun zentzua sorrarazteko asmo zintzoarekin. Chakrabhand Posayakrit